

JOLAS ORDUEN AZTERKETA ETA ERALDAKETA

Red adscrita  Euskadi Aktiboa 

Temas

Infancia, Juventud, Actividad física.

Descripción

1.- Zer egoeraren gainean eragin nahi den.

Jolastokian

gertatzen dena hezkidetzaz-ikuspegitik aztertu, hausnartu eta eraldatzeko helburua du ikastetxeko proiektu honek, kanpoko espazioen berrantolaketan eta berrerabileran garrantzitsuak diren gakoak landuz.

Ikastetxeetako espazioak orokorrean, eta zehazki, jolasgunea, heziketarako eremu oso beharrezkoak dira, kontutan hartu ikasleek astero igarotzen dituzten orduak musikan, teknologian, balio etikoetan edo gorputz hezkuntzan pasatzen dituztenak baino gehiago direla. Jolasguneak harremanak izaten ikasteko funtzioa betetzen du, beste askoren artean. Eta horrek oso lotura sakona du gaztetxoaren sozializazioarekin eta garapenarekin. Eta jolasgunean, genero-arauek eta sexismoak haurren artean gertatzen den elkarrekintza erabat baldintzatzen dute. Esaterako, espazioaren antolaketan, jolasen hierarkizazioan eta generoen arteko jokabideetan.

Bistan dago

ikastetxe gehienetako jolastokiek, eta gurea ez da salbuespena, oso egitura antzekoa dutela: futbola eta saskibaloia erdigunean daudela, gainerako espazioak urriak, nortasun eta baliabide gabekoak dira, goxo egoteko aukerarik ez dute ematen eta kirol-zelaiei begira daude. Alegia, ikasleen beharrak ez dira espazioen antolaketaren ardatza.

Egitura horrek

eragina dauka gaztetxoengan. Baina, espazioak berrantolatzeaz gainera, espazioetan ematen diren erabilerak harremanetarako eta jolasgunea eraldatzeko gako ere izan daitezke.

2.– Aginduaren xedearekin lotutako helburuak.

Urola Ikastola BHIIn
garatzen ari garen proiektuaren **helburua**
honakoa da:



Urola ikastola BHIIn jolastokia ikasle guztientzat espazio
atsegin eta inklusibo bat bihurtzea, non bizikidetza arauak errespetatzen diren
berdintasunari eta aniztasunari lekua emanez, kalitatezko harremanak eta
esperientziak izatera eta sedentarismoa murriztera bultzatzen duen espazio bat
sortuz, ikasle, irakasle, guraso eta zentroko beste langileekin elkarlanean.

Jolastokia berrantolatuko
da ikasleekin batera, berauei galdetuz, beraien hitza kontutan hartuz eta
beraien beharrei erreparatuz. Txoko ezberdinetan banatuko da patioa, txoko
bakoitzean jarduera fisiko mota ezberdin bat egiteko aukera izango dutelarik (
Ekintza domeinuetan oinarriturik), baita sormenerako espazio bat ere. Honela
ikasle guztiek gustuko duen jardueraren bat edukiko duen txokoren bat edukitzea
bermatuko dugu, bertan bere afizio antzekoak dituzten pertsonekin elkartzeko
aukera izango dutelarik. Txoko hauek finkoak izango dira, baina ikasleak
libreki ibili ahal izango dira txoko hauetatik. Txoko ezberdinen proposamenak
egiterako orduan bereziki erreparatuko diogu gaur egun patioa leku
marginaletan edo periferikoetan biltzen
direnen beharrei.

Jolas ordu bakoitzean
dagokion gunetara materiala eramateko ikasle arduradunak jarriko ditugu,
errotazio sistema baten bitartez, ikasle guztiak pasako direlarik arduradun paperretik.
Honela zeharkako konpetentzia hauek lantzeko aukera ere izango dugu:

- o Elkarbizitzarako konpetentzia

- o Ekimenerako eta ekintzailtzarako konpetentzia.

o
Norbera izaten ikasteko
konpetentzia.

Urola Ikastola BHIIn garatzen ari garen proiektuaren helburuekin bat datoz 2021eko irailaren 2ko
AGINDUKO 1. Artikuluan, 2 B puntuan zehazten diren xedeekin:

b) Partaidetza-proiektuak garatzea, ikastetxeetako jolastokiak ikaskuntzarako, jolaserako eta mugimendurako espazio inklusibo bihurtzeko eta/edo dinamizatzeko, baita kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeko ere, eskola-ordutegian zein hortik kanpo, berdintasunean eta aniztasunarekiko (kultura, etnia, sexua, funtzionaltasuna, eta abar) errespetuan oinarrituta eta ikasleen eta haien familien behar eta interesetara egokituta.

*Zera
egin beharko dute proiektuek:*

1.– Ikastetxeko ikasle guztien jolas-aukerak, jarduera fisikoa eta elkarbizitza handitu. 2.– Neskek jarduera fisikoa egitea berariaz sustatu, jarduera-ezaren ratioa handiagoa baita kolektibo horretan.

3.– Mugimendua eta jolas aktiboa sustatu ikasle helduenean edo bigarren hezkuntzako ikasleen artean, adin-tarte horretako sedentarismorako joera saiheste aldera.

3.– Garapen-faseak.

a. Patioko errealitatearen azterketa.

2021-2022ko ikasturtean zehar, patioko zaintzan egon ginen irakasle guztiok eta atezainak, patioko errealitatearen azterketa bat egin genuen ebaluazio fitxa baten bitartez. Bertan eguraldi on eta txarrarekin ikasle ezberdinek espazioa nola erabiltzen zuten, jolasen hierarkizazioa zein zen eta generoen arteko jokabideak zein ziren aztertu genituen ikasleek ere tutoritzatan errealitatearen azterketa bat egin zuten, xumeagoa izango bazen ere.

b. **Patioko errealitatearen eraldaketa.**

2022- 2023

ikasturtean jolastokia berrantolatu da ikasleen beharrak zeintzuk diren kontutan hartuz. Txoko ezberdinetan banatu da patioa, txoko hauetan egongo diren jarduerak beraiek aukeratuak izan direlarik. Txoko bakoitzean jarduera fisiko mota ezberdin bat egiteko aukera bermatu dugu (Ekintza domeinuetan oinarriturik), baita mahai jokoetarako espazio bat ere.

c. **Etengabeko birmoldaketa.**

Proiektuaren helburuarekin bat ez datozen gertaerak eta egiteko moduak sortzen badira, esku hartze bat egongo da hausnarketa kolektibo baten bitartez egoera bideratzeko.

4.– Proiektuaren ebaluazioa.

Aurreko puntuan azaldu dugunez, proiektua etengabeko birmoldaketa baten murgilduta egongo da, patioko zaintza egiten dugun irakasleok eta ikasleek beraiek ere eten gabe aztertuko bai dugu eta bai dute martxan dagoen planteamenduak proiektuaren helburua betetzen duen, patioko errealitatearen azterketa egiteko erabilitako fitxaren bitartez.

d)
Hezkuntza-komunitatearen inplikazioa proiektuan:

1.– Proiektuan parte hartzea.

Gauzak ondo bidean, **Zutoin guraso elkarreak proiektuarekin bat eginez**, finantzazioa bermatuko du diru laguntza honen bitartez.

Irakasleek,
ikasleek eta atezainek patioko errealitatearen azterketa egiten parte hartuko dute. Eta **ikasleen artean,** irakasleek bideratuta eta baldintza batzuk beteaz, beraien patioa edo jolas ordua nolakoa izango den aukeratuko dute.

2.– Prestakuntza-programa: jarduera fisikoari eta sedentarismoa murrizteari buruzko zeharkako edukiak txertatzea ikastetxearen prestakuntza-programetan.

Proiektua Ikastetxeko hezkuntza proiektuaren barruan txertatuko da, sedentarismoa murrizteari garrantzia emanez.

e) Tokiko komunitatearen inplikazioa: udala, auzo-elkarteak edo bestelakoak.

Ikastetxeko instalakuntzak erabiltzen dituzten beste kirol elkartekin eta udalarekin harreman eten gabea izango dugu egingo diren aldaketak denen adostasunez eta onespenearekin eginez.

f) Desberdinkeriei arreta berezia jartzea.

Aurreko puntuetan azaldu bezala, txoko ezberdinen proposamenak egiterako orduan bereziki erreparatuko diogu gaur egun patioko leku marginaletan edo periferikoetan biltzen direnen beharrei.

g) Jarduketa gauzatzeko epea.

2022 eta 2023 kurtsoan
aurreko urtekoa ebaluatu eta berregokituko dugu. E

h) Aurrekontu osoa kontzeptuen arabera banakatuta, proiektuaren finantzaketa-iturriak eta proiekturako eskatutako beste laguntza batzuk.

Proiektua gauzatzeko
eskatu dugun diru laguntza bakarra hau izan da. Proiektuaren finantzaketarako
aurre ikusten dugun aurrekontua hau da, kontzeptuen arabera banakatua:

- o Instalakuntzatan egin
beharreko aldaketak: 3000 euro.

Txoko ezberdinak hornitu, altzariak, argiak,
musika aparatua etab. Ikasleen aukeraketaren arabera izango da.

- o Txoko ezberdinetan behar
izango den materiala: 2000 euro

Ikasleen aukeraketaren arabera material bat
edo beste izango da.

Contacto

Santiago Elias Aizpuru - 639959025 - zutoin@urola.eus

Fecha de última actualización del recurso

19/10/2022

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Calle perdillegi 3 20730 Azpeitia Azpeitia Gipuzkoa Euskadi España

